

Renobales,
GRAVNeko
txapeldun

Gipuzkoa ordezkatu
du Arrutirekin ▶ 5



Tolosaldeko Turismoaren Plan Estrategikoa aurkeztu dute

JARDUNALDIAK ▶ Siadecoko Jon Arrugaetak aurkeztu du Turismo Jardunaldietan

HELBURUAK ▶ Egoeraren diagnosia eta helburuak eta jarduera eremuak finkatu ditu

ALLARIZ ▶ Gaur, Allariz-eko (Ourense, Galizia) esperientzia azalduko dute ▶ 2

JAIONE ASTIBIA



Langile bat hilik lantoki atarian ibilgailuak harrapatuta

LEITZA ▶ 53 urteko M.J.A.V. emakume leitzarra da, Sarrio lantegira lanera zihoana ▶ 7

TOLOSA ▶

Hiri Euskalduna bihurtzeko ahalegina

Kale giroa sustatzeko ekimenak izan dira ▶ 3

IBARRA ▶

Irlandako egoeraz hitzaldia

Eskualdeko gaztetxe eta gazte asanbladek antolatu dute; Gerry Ruddy izango da ▶ 6

IRURA ▶

Kultur Asteko lehen ekitaldiak etzi hasiko dira: Pilota Eskolako finalerdiak eta antzerkia

Hilaren 21a arte ekitaldi ugari izango da, adin guztietako jendearentzat ▶ 4

TURISMOA ▶

Tolosalderako Turismoaren Plan Estrategikoa, martxan

Siadecoren txostena aurkeztu du Jon Arrugaetak I. Turismo Jardunaldietan; diagnosa egina, «helburu estrategikoak eta jarduera eremuak» finkatzen ditu

LEIRE MONTES

Turismoa Tolosaldea I. Jardunaldiak ari dira egiten egunotan Tolosako udaletxean. Erredakzio hau ixterakoan, turismoaren eta hirigintzaren arteko erlazioari buruz ari ziren eztabaidatzen, atzo. Gaur, Ourenseko (Galizia) Concello de Allarizeko turismo apustuaren esperientzia izango dute mintzagai, 20:00etan. Tolosalderako Turismoaren Plan Estrategikoa adostea da jardunaldi hauen helburuetako bat; eta astelehenean, hain zuzen ere, aurkeztu zuen Jon Arrugaetak (Siadeco) egindako txostena.

Siadeco enpresak egin du Plan Estrategikorako diagnosa, 2004an, Tolosaldea Garatzen garapen agintziak eta Tolomendi Mendiko Nekazaritza Elkarrekin bultzaturik. «Oinarriko argibideak» biltzen ditu txostenak, eta «helburu estrategikoak eta jarduera eremuak» finkatzen ditu. Era berean, «agente guztien parte-hartzea sustatu» nahi du.

Turismoa eta garapen iraunkorra. Planifikazio turistikoak «baliabideen kontserbazioa eta promozioa» eskatzen du. Hala, «hiri baldintza bete behar ditu»: akordioa, eragile publikoak, pribatuak, eta herritarren parte-hartzea; azkartasuna: produktu turistikoaren originaltasuna, eskualdeari irudi bateratua eman, eta bezeroarengana erraz iritsi; eta oreak: turistak ezekiz, bertakoek ere turismoaren onura jasotzea. Garapen turistikoak iraunkortasunaren ardatzetan oinarritu behar du: ekonomikoak, ingurumenekoak eta sozialak.

Turismo eraginkorrarako bideak. Donejakue bidearen bi ibilbide daude. Gipuzkoako Bizikleta-Bide Sarearen Planaren beste bi: Aduna eta Ikaztegieta artean, eta Leitzaran bailaran.

Eskaintza.

▶ Enplegua. 2003an %7,5eko pisua zuen ostalaritzak, Gipuzkoaren parean eta EAEko mailaren azpitik (%8,6). Sortutako enplegua %4,4 zen, Gipuzkoakoaren (%5,3) eta EAEkoaren (%5,2) azpitik.
▶ Ostatuak eta okupazioa.



Siadecoren egindako diagnosiaren aurkezpena, herenegun, udaletxean, I. Turismo Jardunaldietan. DV

Gaua igarotzeko aukera eskaintzen duten 30 alojamendu daude: 15 landaturismo eta 4 landetxe; eskualdeko hotel bakarra Tolosan dago. Hotel, ostatu eta pentsioetan 170 ohe daude, aterpetxeetan beste hainbeste, eta 149 landaturismo eta landetxetan. Plazen herena Tolosan eskaintzen da, %13 Abaltzisketan, %9 Adunan, eta %8 Zizurkilan. 2003an ostatu hartu zutenen %90 aisialdi eta oporregatik etorri ziren, eta %8 lan arrazoiengatik. %23koa izan zen okupazio indizea; apirila (%24), uztaila (%27) eta abuztua (%53) izan ziren batez bestekoa gairitu zuten bakarrak. Hotel, ostatu eta pentsioetan bisitariak batez beste 2,9 gau igaro zituzten egonaldiko. Landaturismo eta landetxetan 3, Gipuzkoaren (2,84) eta EAEren (2,66) batez bestekoa baino altuago.

Atrakzio turistikoaren egitura. «Bisitariak erakartzeko elementu eta baliabide turistiko nagusiak nukleoan daude. Ingururan kokaturiko erakargarritasuna galtzen dute nukleotik urruntzen garen heinean. Baina alderdi osagarri garrantzitsuak bihurtuko dira produktu turistiko bereizi eta guztiz erakargarri definitzera iritsi nahi badugu».

Tolosaldeko kate turistikoak. Turistak kontsumitzen duena:
▶ Aurretiko irudiak: paisaia, gastronomia, aisialdia eta kultura. %33rentzat, eskualdeko erreferentzia Tolosa da.
▶ Aurretiko informazioa: ahaz-

ahoko transmisioa (%43), argitalpenak (%32), Tolosaldea Tour (%20) eta Interneta.

▶ Erreserbak: modurik erabilena telefonoa da; Internet bidez ere egiten dira erreserbak.

▶ Hasierako harrera: euskarak, baserriak, gastronomiak eta ingurune naturalak batzen dute eskualdea.

▶ Destinoari buruzko informazioa: ostatuetan, Tolosaldea Tourren...

▶ Alojamenduak: 500 ohe. Jatetxeak eta ostalaritza: 300 establezimendu, %50 jatetxeak eta gainerakoak sagardotegiak, tabernak eta kafetegiak.

▶ Atrakzio eta zerbitzuak: Tolosako Alde Zaharra, eskualdeko monumentu historikoak, festak, gidaturiko bisitak, Donejakue bidea, abentura...

▶ Azpiegitura-ingurunea: eskualdearen kopapena estrategikoa da. Ingurune naturalaren, landa ingurunearen eta hiri ingurunearen arteko lotura eta oreak giltzarria da.

▶ Fidelizazio zerbitzuak: «Fidelizazio estrategiak garatzeko beharra dago».

Eskaeria.

▶ Bisitarien soslaiak. 2003an erdiak baino gehiagok 26-35 urte bitartean zituen, eta heren batek pasatxok 36-60 artean. %50 katalana zen, bostetik bat Euskal Herrikoa, eta hamarretik pasatxo Madrilgoa. «Bertako turismoak garrantzi handia du». Bisitarien erdiak bikotekideekin etorri ziren. %25 taldean eta %22 familian. Gehienak beren kabuz etorri ziren.
▶ Baliabide naturalak dira era-

kargarrienak bisitariarentzat: mendia, basoak, paisaia naturalak... Ostalaritza eskaintza eta gastronomia, baliabide etniko-kulturalak, Tolosako Inauteriak, bertako produktuak eta azokak, kirol jarduerak, eta kultura eta aisialdi eskaintzak dira ondoren.

▶ 2003an ostatu hartutako turistek egindako gastua 3 milioi euro inguru izan zen.

Aukerak, mehatxuak, indarguneak, ahuleziak.

▶ Aukerak: komunikazio azpiegiturak, barnealdeko turismoaren handitzea, garapen iraunkorraren garrantzia, teknologia berriak...

▶ Mehatxuak: Gipuzkoako kostaldea, garraio publikoaren eskasia, eskualdeko ikuspegia aplikatzeko zailtasunak, eguraldia...

▶ Indarguneak: baliabide naturalak, Tolosa Hiria, landa ingurunea, ondare historiko-artistikoa, nekazaritza turismoaren dinamika positiboa...

▶ Ahuleziak: marka irudiaren ahulezia, produktu turistikoaren elaborazio maila eskasa, planifikazio estrategia integralaren gabezia...

Arrakastarako giltzarriak. Ondasun natural eta kulturalen garrantzia; singularitasuna —Tolosa Hiria, kalitate altuko bertako produktuak, euskaren eta euskal ohituren presentzia eta bizitasuna...—; multzokatzeta; markaren kreaioa; kokapen estrategikoa; urte osoko eskaintza; eragile guztien parte-hartzea; irisgarritasuna; garapen iraunkorra; eta planifikazio estrategikoa.

suna; garapen iraunkorra; eta planifikazio estrategikoa.

Jarduera eremuak eta proposamenak. Hiru arlotako helburuak hartu behar dira kontuan: ekonomikoak, gizarte mailakoak eta ingurumen helburuak.

1. Lurralde mailako turismoaren antolaketa eta ekipamenduen planifikazioa:

▶ Esparru turistikoaren ordenazio maparen definizioa.

▶ Informazio turistikorako gune sarea: dokumentazioa, mapak eta planoak, aholkuak...

▶ Akzesoen hobekuntzarako azterketa: trafikoa, oinezkoak, aparkalekuak...

▶ Interpretazio guneen sistema sortzeko aukerak ikertzea: gozogintza, papergintza, Ipo-mamua...

▶ Komunikazio azpiegituren hobetzea: oinezko ibilbideak eta bidegorriak.

▶ Ekipamendu turistikoaren hobekuntza: Tolosako Alde Zaharra, kanpin bat sortzeko aukera, arte eszenikoentzako gunea, Oria ibaia, herrietako ondare historiko-artistikoa...

2. Dinamizazio turistikorako ekintza eta zerbitzuen antolaketa:

▶ Merkataritza eta ostalaritza dinamizatzeko egitaraua. Herri desberdinetan egiten diren azokak eta bestelako ekintzak programa bateratuan egituratzea.

▶ Jarduera soziokulturala dinamizatzeko programa diseinatzea.

▶ Garapen iraunkorrarekin erlazionaturiko jardueren garapena eta sustapena, eta Landa Turismo eta Garapen Iraunkorraren Astea antolatzea.

▶ Eragileen arteko komunikaziorako eta koordinaziorako neurriak hartzea.

3. Eragile eta enpresa turistiko-kostaldea, garraio publikoaren eskasia, eskualdeko ikuspegia aplikatzeko zailtasunak, eguraldia...

▶ Enpresa turistikoak sustatzeko programa eratzea.

▶ Turismo alorreko profesionalentzat formazio eskaintza ziurtatzea.

▶ Tolosaldea Garatzen-en eta Tolosaldea Tour-en aholkularitza zerbitzuen eskaintza hobetzea.

4. Produktu turistikoaren garapena:

▶ Irudiaren garapena eta kudeaketa: marka sortu.

▶ Seinaletika turistikoaren diseinua eta ezarpena.

▶ Komunikazio turistikoaren plan integralaren diseinua.

5. Turismoaren Plan Estrategikoaren komunikazioa eta kudeaketa:

▶ Komunikazio estrategia diseinatu, garatu, eta eragile guztiei aurkeztu.

▶ Planaren jarraipena egin. Jarraipen Batzordea eratuko da.

GIZARTEA ▶

Emantzipazioari buruzko bigarren hitzaldia, bihar

Tolosako Gazteria sailak eta Gaztegunek antolatutako hitzaldi zikloen baitan, emantzipazioari buruzko bigarren saioa izango da bihar Kultur Etxean, 20:00etan. Euskadiko Gazteria Kontseiluko Etxebizitza arloko teknikari Sergio Garciak *Gazteak eta etxebizitza* izango du mintzagai: etxebizitza, gazteon eskubi-dea dela argudiatuko du, zehazki.

JUBILATUAK ▶

Harizpe elkarteak oporrak antolatu ditu Calellara

Harizpe jubilatuen eta pentsiodunen elkarteak oporrak antolatu ditu Calellan hilaren 24etik ekainaren 4ra. Bazkideek 339 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoei 345 euro. Autobusa joan-etorrian, 14 eguneko egonaldia pentsio osoan eta gidari-laguntzailea sartzen dira. Hilaren 16a da izena emateko azken eguna, eta 100 euro ordaindu beharko dira orduan.

GIZARTEA ▶

DYA-k antolatuta, sorospen eta sorosle ikastaroa

DYA Gipuzkoak Sorosle eta Lehen Sorospen ikastaroa antolatu du herritarrentzat hilaren 16an hasita. 3 aste iraungo du, astelehenetik ostiralera 19:00etatik 21:00etara, eta Jesusen Alabak ikastetxean izango da (San Frantzisko kalean). Matrikula egiterakoan 60 euro ordaindu beharko dituzte herritarrek. Izena emateko, deitu telefono honetara: 943 46 46 22.

MENDIA ▶

Alpino Uzturrek Arabara irteera antolatu du

Alpino Uzturre elkarteak mendira irteera antolatu du hilaren 15erako, igandea, Arabara. Santa Teodosiatik abiatu eta Larraonara joango dira mendizaleak, eta bidean Murube gaina (1.128 m.) igozteko aukera izango dute. Irteera Pablo Gorosabeletik izango da, 07:00etan, eta 7 orduko iraupena izango du ibilaldiak. Izena emateko, elkartera deitu: 943 65 27 89.

MUSIKA ▶

Aurrematrikula egiteko aukera musika eskolan

2005-2006 ikasturteko aurrematrikula egiteko epea zabalik da honezkeroko Udala Musika Eskolan. Ikastetxe horretan ikasle izan nahi dutenentzat da aurrematrikula, bai lehendik dabilenentzat bai berrientzat. Hilaren 31n bukatzen da epea, eta astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara izango da zabalik musika eskolako bulegoa izena emateko.

EUSKARA ▶

Galtzaundi Tolosa hiri euskaldun bihurtzeko ahalegina ari da egiten

Kaleko giroa euskalduntzeko helburuarekin abian jarritako ekimenak babesa izan zuten larunbatean herritarren aldetik



Plaza Berrian jardun zuten Amaia Agirre, Xabier Silveira, Anjel Mari Peñagarikano eta Bixente Gorostidi bertsolariak, arratsaldean. N. L.



Haurrek eta gaztekoek ederki pasatu zuten puzgarrietan. N. LATABURU

IRATXE ETXEBESTE

Galtzaundi Euskara Taldea Tolosa hiri euskaldun bihurtzeko ahalegina ari da egiten. Eta hori lortzeko, alegia, «kaleko giroa euskalduntzeko helburuarekin», askotariko ekintzak antolatu zituen joan den astebururako. Bertsolarien saioak, afari herrikoia, haurrentzako puzgarriak... izan ziren larunbatean, besteak beste, herriko gune ezberdinetan, eta babesa izan zuten ekimen guztiek herritarren aldetik. Batez ere gaztetxoek izan ziren egunez Galtzaundik antolatutako ekintzetan parte hartu zutenak; gauean, ordea, gazteek hartu zuten lekua, taberna gehienetan DJek jardun zutelako musika jartzen.

Gisa horretako ekimenak herritarren eskura jartzea «garrantzitsua» dela azaldu zuten antolatzaileek kanpainaren berri ematerakoan, eta tolosarrek ere halaxe uste dute. Izan ere, euskararen alde egiten den edozein ekimen balekoa dela zioten larunbatean batean eta bestean zeuden herritarrek: «Tolosa herri euskalduna da, baina oraindik ere baditu hutsuneak, beste herri askok bezala», esan zion HIRZARI puzgarrietan jolasean zebilen ume baten aitak. «Horregatik, euskarari bultzada emateko ekimenak beharrezkoak dira».



Suitza eta Frantziatik

GASTRONOMIA ▶ Robert Linxe maisuarekin batera, herrian izan ziren larunbatean Suitzako eta Frantziako 30 txokolategile inguru Tolosa ezagutzeko, eta, batez, ere, Gorrotxategi museoa bisitatzeko asmotan. Herriko alkate Jokin Bildarratzen agurra jaso ostean, Alde Zaharra ikusteko aukera izan zuten denek trikiti doinuek lagunduta txokolate eta konfiteri museoraino —beheko argazkian—. 1790eko formularekin egindako kikar bat txokolate banatu zien bisitari bakoitzari Jose Mari Gorrotxategik, eta museoko gailu bakoitzaren berri eman zien. Suitzarrek eta frantziarrek adi-adi jarraitu zituzten haren azalpenak, eta herriarekin «liluraturta» geratu zirela esan zioten HIRZARI; berriz ere itzuliko direla, hain zuzen, J. SAIZAR

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.
Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Baliarrain. Medikua: 88 90 03
Berastegi-Elduain. Medikua:
68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Orendain. Medikua: 65 55 95
Orexa. Medikua: 68 22 28
Tolosa.
▶ Anbulatorioa,
larrialdiak:461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Amaroako dispensarioa:
67 26 37
▶ Asunzion klinika 67 57 99 -
67 53 90 (larrialdiak)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ Tolargi: 65 00 16
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20
▶ Tolosa gasa: 67 53 20
Villabona-Aiztondo.
Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerbitzua:
693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Tolosaldea bus: 65 06 21
▶ Leitzaeran autob.: 948 221015
▶ Taxis: 67 04 20
▶ Taxis (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Morant, R. Zabalzarreta 1
(Tolosa). 943 67 38 49
Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza).
112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_publi@tolosaldeko
hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 -
687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona-aiztondo@tolosaldeko
hitza.info
Anoetaldea. 687 41 00 22
anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarralde. 687 41 00 32.
ibarralde@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

IRURA ▶ KULTUR ASTEA

Kultur Asteko lehenengo ekitaldiak etzi hasiko dira

Hilaren 21a arte ekitaldi ugari burutuko dira; haur, gazte, heldu zein jubilatuei zuzendutakoak antolatu dituzte

IMANOL GARCIA

Etzi emango zaio hasiera Irura-ko Kultur Asteari. Trinketean egingo diren Pilota Eskolako finalerdiak izango da egingo den lehen ekitaldia. 18:00etan hasita, xare eta pala partidak egingo dira. Egun horretan, Trinketean ere, antzerki emanaldia izango da Lakrikun taldearekin. *Greban gaude* antzezlan eskainik dute, 22:30etan hasita.

Larunbata honetan 11:00etan hasiko dira ekitaldiak. Xake txapelketa egingo da plazan. Parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute liburategian eta gaur da horretarako azken eguna. 16:30ean hasita, Aizpurua jatetxean, taberna eta elkarleen arteko XII. Mus Txapelketaren finalerdiak eta finala egingo dira. Ondoren, sari banaketa egingo da. 17:00etan, Etxezarreta kalean eta Loatzo plazan, haurrentzako eta gaztetxoentzako lasterketak eta jokoak izango dira. Ondoren meriendatxo emanango da. 18:30ean, Sambhu taldearen eskutik, *Klin. Klaun. Klowns* antzerki emanaldia Loatzo plazan.

Hilaren 15ean, igandean, San Isidro eguna ospatuko dute. 10:30ean meza egingo da parrokiaren. Ondoren, 11:15ean, Irurako dantzarien emanaldia



Lakrikun taldekoen antzezlan iksui ahaliko da etzi Trinketean. I. GARCIA

plazan. 12:00etan Ixobe Bikondoaren erakustaldia aitzakora eta motozerrarekin. 14:00etan Aizpurua jatetxean baserritarren bazkaria.

Hurrengo astean ere ekitaldi ugari izango dira. Hilaren 16an, Zaharren biltokian, mahai jokoak eta toke eta bote jokoak egingo dituzte. 19:30ean, ikastolako aretoan, diapositiba emanaldia. Izarne Garmendia irurarrak eta Fernando Rojo tolosarrak *Iruratik Senegalera* eta *Malira* bidaiaren berri emango dute.

Hilaren 17an, jubilatuen ibilaldi neurtua egingo da, 16:15ean hasita. Plazatik hasi eta herriko kaleetan zehar egingo dute ibilaldia. 17:30ean biltzaldia egingo da Zaharren biltokian, autoestimari buruz, Kutxak babestuta. Ondoren *luncha* eta jokoetako sari banaketa egingo da.

Hilaren 18an, 17:30ean hasi-

ta, Ikastolako aretoan kafe tertulia egingo da bularreko minbiziari buruz. Gaixotasun horren prebentzioari buruz ariko dira hizketan Lurdes Aritziturri medikuarekin.

Hilaren 19an, kontzertua eskainiko dute Loatzo musika eskolako ikasle nagusienek plazan, 19:30ean.

Hilaren 20an, 17:30ean, argazki eta ipuin lehiaketako sari banaketa egingo da Ondoren, Irrintzi taldeko Patxi Ramirezek ipuin kontaketa saioa eskainiko du, Kutxak babesturik.

Hilaren 21ean, herri bazkaria eginoda Gazte Alaiak elkarrean. 14:00etan egingo da bazkaria eta famili arteko izatea nahi dute antolatzeileek. Bi prezio ezberdin izango dira: bat helduentzat eta bestea haurrentzat. 17:30ean, xare eta pala txapelketaren finalak jokatuko dira.

ZIZURKIL ▶

Oporretan Euskarazeko begiraleak

Zizurkilgo Udalak deialdia zabaldu du antolatu duen Oporretan Euskaraz 2005 Udaleku Irekietarako begiraleak aukeratzeko. Beren betekizuna ekainaren 27tik uztailearen 22ra bitartean burutu beharko dute. Deialdian parte hartu ahal izateko ezinbesteko baldintzak: Zizurkilan erroldatua egotea; 18 urteak beteak izatea edo aurtun betetzea; euskara ondo menderatzea eta azterketa teoriko-praktikoa egitea. Izenak emateko epea hilaren 27an bukatuko da. Azterketa ekainaren 3an, 18:30ean, izango da Atxulondo kultur etxean. Sei begirale kontratatuko asmoa du Zizurkilgo Udalak.

IBARRA ▶

Soka-dantzarako entseguak hasi dira

Herriko festetan tradizio handia duen soka-dantzarako entseguak hasi dira jadanik. Herritar guztiak, gazte nahiz heldu, animatu nahi dituzte ekitaldi honetan parte hartzera, jende berria erakartzeko bultzatu nahi baita. Soka-dantzarako entseguak Alurr dantza taldeak Azkuen duen lokalean egingo dira asteazkenean 20:30etik 22:00etara.

BERASTEGI ▶

Ameriketara joandako euskaldunak

Gaur izango da ikusgai eskolan, egunean zehar ikasleentzat eta 18:00etatik 22:00etara herritarrentzat euskaldunen emigrazioari buruzko erakusketa. Berastegiaren asko izan ziren Ameriketara joandakoak. Gai honen inguruko muralak izango dira ikusgai.

ANOETA ▶

Tutorearen bisita eta mintegia bihar KZgunean

KZguneko tutorearen bisita izango da bihar 09:00etatik 13:00etara. 10:00etatik 12:00etara Adobe Acrobat Reader mintegia emango da.

ALKIZA ▶

Antonio Zubiaurre alkate ohiari omenaldia egingo diote asteburuan

Kultur ekitaldiak izango dira eta igandean omenaldia egingo da

ERREDAKZIOA

Antonio Zubiaurre alkate ohiari omenaldia egingo diote asteburuan honetan. Etzi Mal de muchos taldearen kontzertua izango da San Martin elizan, 22:30ean hasita.

Larunbatean, 18:00etan, Alkizako argazki zaharren proiektzioa, Kultur Etxeko bideoa. 22:00etan, *Ezetz lepoa jarri* antzezlan herriko frontoian. Sarrera dohainik izango da. Igandean, 10:00etan meza nagudia egingo da eta

12:30ean omenaldi ekitaldia hasiko da. Txistulariak, dantzariak, trikitixa, abesbatza eta abar izango dira. 14:30ean bazkaria egingo da frontoian. Ondoren, 17:00etatik 20:00etara trikitixa entzun eta dantzatzeko aukera.

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nafarroa etorb, 13 behea - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Faxa: 943 65 03 13

ALEGIA ▶ KIROLA

Renobales, GRAVN-eko txapelduna

Binakako 22 urte beherekoen mailan Gipuzkoa ordezkatu du Alegiakoak

NOELIA LATABURU

Goranzko ibilbidea darama Alegiako Ugaitz Renobales gazteak pilota munduan. Bere azken garaipena Amurrioren lortu du, GRAVN txapelketako txapela bereganatuz. Bertan, binakako 22 urte beherekoen mailan aritu da Gipuzkoako taldea ordezkatzeko. Finalean Nafarroako taldea izan zuen aurrez aurre, bikotekidea Usurbilgo Arruti izan zuen.

Finalera heldu aurretik talde guztien arteko ligaxka jokatu

dute pilotariak. Renobalesek hiru norgehiagoka jokatu ditu, ligaren barruan. Finalerdikoak Bizkaiaren aurka 22 eta 11 irabazi ostean, finalerako txartela lortu zuen Gipuzkoako taldeak. «Finala erraztasunez irabazi genuen», adierazi du Alegiakoak. 11 tantoetako alde lortu zuten Gipuzkoako taldekoek hasi eta berehala, eta 15 eta 4 puntuko markagailua ikus zitezkeen Amurrioren. «Urduri aterantz nintzen, baina alde lortu genuenean asko lasaitu nintzen; gainera, bikoteak eta biok



Amurrioren eskuratu zuen txapela Ugaitz Renobalesek. HITZA

FINALA

«Hasieran urduri aterantz nintzen, baina lortutako alde ikusita lasaitu eta ondo elkar ulertu genuen Arrutik eta biok»

ondo elkar ulertu genuen», esan du Renobalesek. Hala ere, gero egoera berotu egin zen eta Urdaniz eta Arrastoa bikote nafarrak alde murriztea lortu zuen, 19 eta 15eraino. «Eskerrak hasieratik aurreratu ginen, bestela arazo gehiago izango genituzkeen neurketa irabazteko» aitortu du pilotariak.

Ez du atsedenerako astirik Renobales gazteak, izan ere, GRAVN-ek gain, beste hainbat txapelketatan dabil. Besteak beste, atzo Bergarako txapelketako finalerdiko norgehiagoka jokatu zuen, etzi Elgetako lau t'erdiko txapelketan ariko da 22:00etatik aurrera eta Abadiño eta Añorgan ere ari da jolasten.

ALEGIA ▶

Bertso bazkarian izen emateko azken eguna

Larunbat honetan bertso bazkaria antolatuta dute A.K.O.k eta Alegiako Gazteak. Bazkaria 14:30ean izango da Intxurre elkartearen, 10 euroren truke eta gaur da izen emateko azken eguna. Zerrendak Ixkiña, Etxeberria-enea, Jubilatua-enea, Hilario-enea eta Gaztetxean daude. Bertara azalduz edo 685 709 287 zenbakira deituz eman daiteke izena.

TOLOSALDEA ▶

Herritarren proposamenak jasotzeko buzoiak

Albiztur, Alkiza, Bidegoian eta Larraularen buzoiak jarri dira, Agenda 21 prozesuaren barruan, herritarren proposamenak eta ekarpenak bilatzeko. Albizturaren eta Bidanien udaltxe sarreraren, Alkizan herriko postontzi guztiak dauden udaltxeko gelan, Goiatzen plazan eta Larraularen herriko postontziak dauden elizako horman jarri dira buzoiak.



Albizturaren dagoen buzoia. N. L.

BEDAIO ▶

Bihar ospatuko dute Harri Jai Eguna

Bihar egingo dute Bedaion Harri Jai Eguna. Ekitaldi ezberdinak antolatuta ditu Artubi Kultur Elkarteak: 11:00etan meza nagusia egingo dute, eta ondoren, hamaiketako prestatuko dute elkarrean. Bertan izango dira Agirren eta Mañukorta bertsolariak eta trikitilariak. bazkaria 14:00etan izango da eta arratsaldean bertsolari eta trikitilariak izango dira.

ALEGIA ▶

Bake epailearen aukeraketa prozesua abian

Lau urtez behin egiten den bake epailearen aukeraketa prozesua martxan da dagoeneko, izen emateko epea zabalik baitago apirilaren 30etik. Interesa duen guztiak Alegiako udaltxean eman beharko du izena maiatzaren 18a baino lehen. Prozesuari buruzko informazio gehiago nahi duenarentzat, udaltxeko bulegoetan bertan eskuratu ahal izango du.

hitza *lagunen*
txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

ILUMINAZIOA

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

kanikak
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Borroka berdinak dira

Herri irlandarrak inperialismo britaniarretik askatzeko izan duen borroka historiako luze eta gogorenetakoa bat izan da eta borroka honek jalgi ditu euskal langile klaseak eta gazteriak ikas ditzakeen ikasgai ugari. Euskal Herriaren kasuan zehazki, prozesu irlandarra izan zen Lizarrako ituna iradoki zuena. Honen porrotetik urte batzuk igaro direla, Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea lortzeko euskal burgesiarekin fronte bakar bat osatu behar dela esaten da tematurik oraindik, baina espainiar oligarkiarekin loturak dituen euskal eskuinak inoiz ez dituela herriaren nahi demokratikoa sutsuki defendatu eta hau zapaltzen dutenei ez dietela gogorregi aurre egin erakutsi du ordea esperientzia historikoak.

Bere jokabideak, Alderdien Lege antidemokratikoa babestu

eta erabili duelarik, oso garbi erakutsi du hau dena. Euskal Herriko autodeterminazio eskubidea lortzeko eta herri honetako gehiengo zapalduari (langileei, gazteei, langabetuei...) eragiten dioten arazoekin amaitzeko bide bakarra errebindikazio demokratiko guztiak, itzulingururik gabe, kapitalismoaren aurkako eta sozialismoaren aldeko borroka planteatzen dituen programa batean biltzea da.

James Connollyk, iraultzaile marxista irlandar handiak, Irlandaren askatasunaren alde borrokan ari zirenei, borroka honek sozialismoaren aldeko borroka zabalago baten zati izan behar zuela oharrarazi zien, edo bestela porrotera behartua egongo zela: «Bihar armada britainiarra botatzen baduzu eta bandera berdea Dublingo Gazteluaren gainean eskegi, errepublika sozialista bat antolatzeko planteatu ezazan, Ingalaterraren menpe jarraituko duzu, kapitalisten, lurjabeen eta herrialde honetan ezarritako merkataritzak eta

industria erakundeen bitartez menderatuko zaitu». (...) Irlandarrentzako Irlanda baten alde gaudete. Baina zeintzuk dira irlandarrak? Ez da langile etxeen jabe den alokatzailea, ez irabaziei zukua atera nahi dien kapitalista izerditsua, ez abokatu txukuna, ez prostituitutako kazetaria —etsaiaren soldatapeko gezurtiak— (...) «Ez dira hauek etorkizuna bere eskuetan duten irlandarrak. Ez dira hauek, langile klase irlandarra baizik, nazio libre bat jaso dezakeen klase zurrun bakarra». Britainia Handiagatik Irlandak jasandako zapalaketarentzat, lapurreta nahiz esplotazioz betetako mendeen ondoren, ez du oraindik soluziobiderik aurkitu, eta ezta aurkituko ere oinarri kapitalistakoz gizarte honetan.

Irlandako akordioa eskuetan dugula, inork ezin du onartu katolikoei, iparraldeko sei konderrietako sektorerik zapalduenak, kontzesiorik jaso dutenik gobernu britainiarren aldetik. Aipatu

akordioak irlaren lurralde banaketa bedeinkatzen du. Hego Irlandak, zeinaren Konstituzioak 26 konderrien batasuna eskatzen duen (iparraldeko 6 konderriak barne), uko egin dio eskaera honi. Akordioak irlako puntu guztietako ordezkariak biltzen dituen *Konstituentia* bat ezartzen du, botere eraginkorrik ez duena ordea. Autodeterminazio eskubideari dagokionez iparraldeko 6 konderrietara mugatzen da. Hau babes bilakatzeko da protestante eta unionista sektarioentzat ordea, gehiengo izanik ez baitute Irlanda batu bat onartzen, kapitalismo britainiarrenpetik aske.

Ipar Irlandako gobernu autonomikoan, ostiral santuko akordioaren ondoren sortua berai, akordioaren alderdi sinatzaile guztiek hartzen dute parte, Sinn Feinetik hasita eskuindar unionistak arte. Praktikan ordea, zer ebatziko da akordioak masa langileentzat? Ez langabezia, ez desberdintasun sozialak, ezta bizi baldintzen gutxi-

tzea ere ez dira desagertuko kapitalismoaren pean, mundu ekonomia-aren eboluzioaren menpe jarraituko baitu Irlandak. Ez da batasun irlandarra lortzen, ez «subiranotasuna» lortzen, ez sektarismo nahiz aginte britainiarrekin amaitzen. Baldintza hauetan ez da egiazko bakerik lortuko.

Tolosaldeko gaztetxeek eta gazte asanbladek, Irlandako prozesuaren inguruko hitzaldia antolatu dute, Gerry Ruddyekin. Ruddy IRSPko Komite Nazionalako kidea, mugimendu errepublikar irlandarraren ikuspuntu sozialista iraultzailea eta bakea lortzeko klaseko alternatiba bat eskeinitu du.

IRSPA, 60ko hamarkadaren amaieran Seamus Costello buru zuela mugimendu errepublikarretik ezkerrean jo zuen sektore batean du jatorria eta 1974eko abenduan sortu zen James Conolly iraultzaile sozialista irlandarraren ideietan oinarriturik.

IBON ARTOLA ETA
MANU ODRIOLAZA ▶ ANOETA

IBARRA ▶ GIZARTEA

Hitzaldia eskainiko du gaur Gerry Ruddyk Gaztetxean

Tolosaldeko gaztetxeek eta gazte asanbladek antolaturiko ekitaldia izango da

INIGO TERRADILLOS

Gaur 19:00etan Gerry Ruddyk IRSPko, Irlandako Alderdi Sozialista Errepublikanoko Komite Nazionalako kidea, Ibarra-ko Gaztetxean Tolosaldeko gaztetxeek eta gazte asanbladek antolatuta *Eskubide demokratiko nazionalen aldeko borroka eta sozialismoaren aldekoa, borroka bera da* hitzaldia eskainiko du.

Izan ere, Gerry Ruddy Euskal Herrian izango aste honetan.

Irlanda eta Euskal Herriko egoera politikoari buruz aritzeko. Antolatzaileen esanetan, herri irlandarrak inperialismo britaniarretik askatzeko izan duen borroka historiako luze eta gogorenetakoa bat izan da, eta hain zuzen ere, borroka honek euskal langileentzat eta gazte-riarentzat hainbat ikasgai jalgi ditu. Egoera horri buruz eta Euskal Herrian egun bizi duzun egoeraz mintzatuko da Gerry Ruddy.

Gaurko hitzaldiaz gain, lehe-



Gerry Ruddy. GARA

nago ere izan da irlandarren ordezkari Euskal Herrian. Izan ere, Sinn Feineko idazkari orokorra den Gerry Adams hainbatetan izan da gure artean. Oraingoan, berriz, Gerry Ruddyk bere ikuspuntua eskainiko du; hots, mugimendu errepublikar irlandarraren ikuspuntu sozialista iraultzaileari eta bakea lortzeko klaseko alternatibari buruz ariko da.

Ibarrara etorri aurretik, atzo eguerdian Leioako Kanpusean izan zen eta iluntzean Bilboko

Kukutza gaztetxean bildu zen. Gaurkoan, Donostiako Euskal Herriko Unibertsitateko Ibaetako Kanpusean izango da 12:00etan. Eta arratsaldean, berriz, 19:00etan Ibarra-ko Gaztetxean izango da hitzaldi tertulia Ruddy-ekin. Bihar Gasteizen egongo da egun osoan. Eguerdian, 12:00etan Geografia, Historia eta Filologiako fakultateko aula nagusian izango du hitzordua. Arratsaldean, berriz, 19:00etan Luis de Ajouria aretoan eskainiko du hitzaldia. Etzi, Iruñean egingo dute tertulia Ruddy-ekin, izan ere, 13:00etan Nafarroako Unibertsitate Publikoan izango da, eta Euskal Herrian eskainiko dituen hitzaldiekin amaitzeko Gerry Ruddy irlandarra Burlatako Gaztetxean izango da 20:00etan. Antolatzaileek parte hartzerako gonbidatu dituzte herritar guztiak.

iragarki laburrak ▶

BASABI Inmobiliaria

Pablo Gorosabel, 40
L. plaza - 7. bulego
20400 TOLOSA
Tel. eta Fax: 943 65 55 87
mug.: 660 368 994

Abaltzisketa. Sei etxe atxiki, sukaldea, egongela, bainugela eta terrazarekin, lehen solairuan, hiru logela, batek bainua du, bainugela eta bi terraza bigarren solairuan, bi autorentzako garajea eta txokoa beheko solairuan.

Anoeta. Duplex ebexbitza estreinatzeko salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garajea aukeran.

Belauntza. 1.060 m²-ko pabilioia salgai; oso argitsua eta garabiarekin.

Belauntza. 225 m²-ko pabilioia alokairuan eskaintzen da. Oso

argitsua. Ur eta elektrizitate instalazioarekin.

Bidanía. Bi familierentzat egokituriko sei etxe salgai. Garajea, sukaldea, egongela, bainugela eta terrazarekin lehenengo solairuan. Hiru logela, bainugela eta terrazarekin bigarren solairuan.

Donostia. Gros. 70 m²-ko duplex zoragarria salgai Sagues zonaldean. Berritua.

Donostia. Aiete Munto auzoan 70 m² dituen ebexbitza salgai. Kanpoaldera. Erdi berritua.

Berdeguna ugari inguruan.

Errioxa. Hormilla herrian Najeratik 3 kilometrotara. 11 etxe atxiki salgai.

Urbanizazioan berdegunea eta igerilekuarekin. 151.000 euro.

Ibarra. 85 m²-ko ebexbitza salgai. Kanpoaldera. Bizitzera sartzeko. Garajea aukeran.

Lasarte. 65 m²-ko ebexbitza salgai. Oztaran kalean. Hirugarren solairuan. Kanpoaldera. Eguzkitsua.

Tolosa. Iurre auzoan 98 m²-ko ebexbitza salgai. Erabat Kanpoaldera. Eguzkitsua. Igogailua eta trastelekuarekin. Garajea murrarekin.

Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m² dituen ebexbitza berritua salgai.

Atzealdean baratz propioarekin.
Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m²-ko ebexbitza salgai, kanpoaldera, berritzeko.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinean, 110 m²-ko ebexbitza salgai. Kanpoaldera, eta oso eguzkitsua. Igogailuarekin. Berritzeko premia.

Urretxu. 780 m²-ko pabilioia salgai. 300 m² dituen tarte solairuak. Instalakuntza osoarekin. Erakusketazabala.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Langile bat hilik lantoki atarian, ibilgailu batek harrapatuta

M.J. A.V., 53 urteko emakumea, 14:00etan sartzekoa zen Sarrioko lantegian

JAIONE ASTIBIA

Atzo eguerdian, 14:00etarako minutu batzuk falta zirela, M. J. A. V., 53 urteko emakumezko leitzarria hilik suertatu zen, Sarrioko Papel S.A. enpresan, bere lantokira zihoala, lantokiko atarian bertan, furgoneta baten harrapatuta, lan istripuan.

Gertaera, lantoki horretako 17. karga-deskargako moilaren aurrean gertatu zen, aparkalekuan, 13:50 inguruan, dirudienez bere kotxea utzi eta fitxatzeraz zihoala, han inguruan omen zegoen banaketa enpresa bateko furgoneta bat atzeraka maniobra bat egiten hasi eta azpian harrapatu zuelarik. Berehalakoan, lantokian bertako eta herriko osasun zerbitzuko mediku eta anbulantziak ere etorri eta, bere horretan berpizten ahaleginak egin omen zituzten, «14:40 arte aritu dira», zioen lekuko batek, baina bertan hilik gelditu zen, zerraldor. Dirudienez, «barren-go zauri oso larriak» izaki, ia berehalakoan eragin zioten heriotza.



Sarrioko enpresan, 17. moilaren atariko aparkalekuan gertatu zen. J.A.

Kasua, Foru Zaingoa ari da ikertzen atzo bertatik eta istripuari buruzko atestatua ere beren gain omen dago, iturri ofizialek aditzera eman zuten. 16:30ak aldera eraman zu-

ten gorpua Iruñeara, «autopsia egitera».

Esan bezala, M. J. A. V. leitzar emakume langileak Sarrioko Papel SA lantokian egiten zuen lan. Arratsaldeko erreleboa

zuen eta haraxe sartzera zihoan, heriotza eragin zion istripua gertatu zenean.

Hirzik jakin izan zuenez, atzo arratsaldean bertan, Sarrioko Papel SA enpresako bertako langileen ordezkarien batzordea eta enpresako zuzendaritza bildu ziren.

Lankideen erantzuna

«Aurrerantzean horrelako lekuetan hartu beharreko neurrirez aritzeko konpromisoa» hartu zuten. Langile batzordeak bere aldetik, ondoren bilkura egin zuen eta gaur eguerdirako, 12:00etatik 13:00etara, ordu beteko geldialdia egin eta lantoki aurrean elkarretaratzea egitea erabaki zuen, «lan istripua salatuz» batera, «lantokian segurtasun neurri hobea» aldarrikatu eta eskatzeak. Bestalde, lankidearen hileta elizkizunaren garaian, «bi ordu-tan atertzera» erabaki zuten.

Leitzar langile horren aldeko hileta elizkizunak, bihar izanen dira, 18:00etan, Leitzako Mikel Donearen elizan.

LEITZA ▶

Harrobiekiko informazioa emateko hitzaldia bihar

Herri Kontsultaren Aldeko Taldeko kideak eta Migel Mari Elosegiren izan dira hizlari

J. ASTIBIA

Harrobien inguruko herri kontsultako informazio kanpainan murgilduta, Herri Kontsultaren Aldeko Talde Sustatzaileak berak hain zuzen ere, hitzaldi baterako deialdi zabala egin du bihar, 20:00etan izanen da zinema aretoa, eta herritar guztiei bertara joateko gonbidapena egin «gaiak duen bereziziko garrantziarengatik», igorritako oharrak dienez.

Maiatzaren 22an, «Leitzan harrobirik bai ala ez?» galderarekin egin den herri kontsultako gaiaren inguruan, «harrobiei buruzko informazioa», azalduko omen dute, «beti ere txosten eta proiektuetan oinarritutako datuak emanez», azpimarratu nahi izan dutenez. Migel Mari Elosegiren, biologoa ere hitzaldian parte hartzekoa da.



Koadrilen arteko futbol txapelketan

LEITZA/FUTBOLA ▶ Badira bizpahiru asteberu, herriko futbol txapelketa hasi zela. Leitzako futboleko koadrilak ez ezik, Aresoko, Ezkurra eta baita Berastegiko taldeak, hamasei denera, ari dira parte hartzen. Zortzinako bi taldeetan banatuta, denek denekin

jokatu behar dute aurreneko fasean, zazpi jardunalditan. Epaila lanak txandaka egiten dituzte. Horretantxe ari dira, eta herenegun iluntzean jokatu zuten esate baterako, Pestizida eta Beastiarrak taldeek. 3 eta 2 ko emaitzarekin bukatu zuten norgehiagoga. J. ASTIBIA

LEITZA ▶ GIZARTEA

81-91ko ikastolako argazkiak eskuragarri

Mikel Ilarregi orduko irakasleak CD batean jaso ditu 400 argazki baino gehiago

J. ASTIBIA

Mikel Deuna ikastolako 1981 eta 1991 urte bitarteko ikaslearen argazkiak, CD batean jaso ditu, urte haietan bertako irakasle zen Mikel Ilarregi mai-suak, eta nahi duen guztiarentzat eskura jarri: horretarako nahiko omen da Maimur edo Astiz liburudendetan edo Karrape Irratian bertan izena

eman eta eskaera egitea. «Egun hauetakoa» epea dago horretarako, aditzera eman duenez.

Ikasle-ohien elkarretaratze batean bota omen zituen argazkiak eta eskaria ikusita, «sailkatu» eta 417 argazkitako «bildumatxoa» prestatu du. Materialaren gastuak ordaintzeko, 10 euro ordaindu behar omen dira.



Leitzan, Maiatzaren 22an
HERRI KONTSULTA:
Leitzan harrobirik bai ala ez?

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko maiatzaren 11, asteazkena ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzola, Aduna, Abatub, Alegia, Alkiza, Alzo, Ametzola,
Aranda, Araso, Balamán, Ebarizta, Eratzaga, Errotzi, Estuán, Herrialde,
Ibarra, Irujo, Irujo, Irujo, Leizorri, Oñativia, Oñate, Tolosa, Vitoriano,
Zuzuri Besterik: Leizorriko Euzkara Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurjaritza.
Kultura Salla

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

17

hotzena

12

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Irlandako egoera politikoa, Euskal Herria eta Irlandako eskubide demokratiko nazionalen aldeko borrokaz hitz egingo du Irlandako Gerry Ruddyk 19:00etan Gaztetxean.

Tolosa. Turismoa Tolosaldean jardunaldiak: Allariz-eko (Ourense, Galizia) esperientzia. Udaletxean, 18:30etik 21:30era.

Tolosa. Eskaintza partziala mekanizatua ziklo formatiboari buruzko bilera informatiboa Tolosaldea LH Institutuan 19:00etan.

Tolosa. Igarondo udal igerilekuan aste honetatik aurrera solariuma irekita egongo da.

ERAKUSKETAK

Alegia. Isabel Mujikaren koadroak Jubilatuen tabernan.

Berastegi. Ameriketara joandako euskaldunei buruz. Muñagorri eskolan 18:00etatik 22:00etara.

Hernalde. Mertxe Etxeberria hernaldetararen olio-pinturak ikusgai daude Ostatu tabernan.

Ibarra. Kutxa Gizarte-Ekintzak, Udalarekin lankidetzan, euskal herri kirolen inguruko argazki-erakusketa bikaina jarri du Benito Izagurre kultur etxean.

Tolosa. Aitor Ventureiraren euskal inauteriei buruzko argazkiak jarriko dira ikusgai Ganbara arropa dendan (Gudari 16).

Tolosa. Calcutako bizimoduaz argazkiak Aranburu Jauregian.

Tolosa. Lurdes Peralesen pinturak Lanbroa tabernan.

Tolosa. Miren Gonzalez eta Matxin Labaien pintoreen koadroak Aranburu Jauregian.

Tolosa. Omar eta Marcos pintore kubatarrek Fronton kafetegian.

Tolosa. Manuel Arretxe pintorearen akuarelak Sorron koadro dendan.

Villabona. Ezker abertzaleak 20 urte. Gaztetxean 17:00etatik 21:00etara. Bihar ere bai.

ZINE-KLUBA

Alegia. Maria, Ilena eres de gracia. Gaztetxean 21:30ean.

Urarekin busti zaitez

TOLOSA ▶ 'Urik onena, alferrik galtzen ez dena' lelopean ura nola aurreztu erakusten duen autobusa jarri du Kutxak Trianguloan aste osoan zehar

JOXEMI SAIZAR

Urak luraren azalaren %71 hartzen du. 1.400.000 km³, baina horietatik 200.000 km³ bakarrik dira giza kontsumorako baliagarriak. Kantitatea duela 2.000 urteko bera da, baina erabilpenak sei aldiz egin du gora mende batean eta biztanleria hirukoiztu besterik ez da egin. Gipuzkoan urtean 70.000 milioi litro ur tratatzen dira. Pertsona bakoitzak 160 litro ur kontsumitzen du egunero etxean: garbiketa pertsonalean 56, komunetan 40, garbigailuan 32, platerak eta garbitzen 24 eta elikaduran 8.

Datu horiek ikusita uraren kontsumo arduratsuen garrantzia begibistakoa da. Kutxak, hori ikusita, gai honi buruzko informazioa eta ura nola aurreztu erakusten duen autobusa prestatu du eta herriz herri dabilten Gipuzkoa osoan. Aste honetan Tolosari egokitu zaio eta Trianguloan dago 09:00etatik 20:00etara, ikastetxe eta partikularrentzat zabalik.

Mundu osoan zehar ondasun hau oso modu desorekatuan banatuta dago. Ipar Hemisferioan uraren %93 edatekoa da, baina Hego Hemisferioan %43 besterik ez. Munduko biztanleriaren %40k arazoak ditu ur eskasia dela eta. Ondasun hori zaintzeko aholku batzuk ematen dituzte *Urik onena, alferrik galtzen ez dena* lelopean.

Sukaldean erabiltzen da etxe bateko uraren %40. Hona aholkuak: ontzi-garbigailuak eskuz garbituta baino askoz ere gu-



Trianguloan kokatua dago aste osoan urari buruzko informazioa ematen duen autobusa. JOXEMI SAIZAR

txiago kontsumitzen du; arropa garbigailua ondo beteta erabili behar da, programa laburrekin; ur freskoa lortzeko, hobe da hozkailuan gordetzea; ontziak xaboitu bitartean, kanila itxi; barazkiak garbitzeko, balde bat erabili; eta jakiak ez desizoztu kanilaren azpian.

Bainugelan kontsumitzen dugu uraren %60. Komuneko ur depositoiari litroko botila sartzea; komun berrietan karga erdia erabiltzea; komuna paperontzi gisa ez erabiltzea; hortzak eta eskuak garbitu edo bizzarra kentzu bitartean kanila itzea; bainatu beharrenean dutxatzea; xaboa eman bitartean kanila itzea; eta aurreztailera erabiltzea aholkatzen dute.

Etxetik kanpora, ur gutxiago gastatuz lore eta landareak orain bezain eder nola eduki erakusten dute: tantakako



Etxeko tresnetan ura nola aurreztu erakusten dute. J.SAIZAR

ureztatzea; ureztaketa programatzea edo hezetasun-sentoreak erabiltzea; hemengo espeziak aukeratzea; urezkatetaren maiztasuna murriztea; ordurik freskoenatan ureztatzea; eta euri-ura aprobetxatzea. Autoarentzat garbiketatu dela da gutxi kontsumitzen duena.

Matxurengatik galtzen den

uraz ere informatzen dute: hodi eta kaniletatik joaten dena, tantaka egoten diren kanilak, kanilaren ur negarra, komunetan ihesak...

Bada ura galtzen ez uzteko non ikusi eta non ikasi. Munduari mesede egingo diogu eta baita gure poltsikoari ere, hileroko fakturan asko aurreztuko dugu eta.

AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko etzeiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZaren egoitzara; ekarri argazkia




URTE ASKOAN
Eneko Lopez Etxenagusia.
Gaur 4 urte. Aitona, osaba eta ebeko guztien partetik zorionak.



URTE ASKOAN
Joseba (Bidania-Goizati).
Gaur 6 urte. Zorionak ebekoen partetik.



URTE ASKOAN
Unai Aristi Gorostidi (Tolosa).
Gaur urtebete. Zorionak gurasoen eta familiaren partetik. Muxu bat.



URTE ASKOAN
Ibai Julian (Tolosa). Amaboa eta aitaboren partetik zorionak. Muxu handi bat eta ondo pasa eguna.



URTE ASKOAN
Xuban Munita Saralegi (Tolosa). Gaur 7 urte. Zorionak familia osoaren partetik.